



**2024KO OTSAILAREN 29KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko otsailaren hogeita bederatzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Jose txo Sese Eztala zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Alkateak dio eskaera bat egon dela mozio bat gai-zerrendan sartzeko, 2024ko martxoaren 8rako EH Bilduk aurkeztutako mozioa hain zuzen ere. Honen aurrean esan, beren baloraketa zera dela: behin gai zerrenda bidalita, posible dela puntu berri bat txertatzea, beti ere Osoko honek gehiengoz hala onartuko balu. Kasu honetan, beren ustetan araudiak dioenaren arabera, gai batek betiere presazko izaera izan behar du modu horretan sartu ahal izateko, eta beren ustetan idatzi hori ez da presazkoa.

Ez dutela ulertzen zergatik ez duten behar zen momentuan aurkeztu, jakinda Osoko Bilkurako deialdiak astelehenetan bidaltzen direla.

Gai honi presazko izaera aitortzea bozkatuko duela Osoko Bilkurak, eta eurek onartzeko erabakia hartu dutela eta horren alde bozkatuko dutela, presazko izaera ez izan arren euren ustetan.

Honen ondoren, bozketara pasa dira eta, aho batez, aipatutako mozioa gai zerrendan sartzeko erabaki du Osoko Bilkurak.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.



Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

### III.- 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak 2023ko aurrekontu likidazioaren berri eman du.

2023ko aurrekontu likidazio honetan gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 11.015.190,93 €-koa da, aurrekontu emaitza -1.471.117,30 €-koa eta aurrekontu emaitza doitua 2.185.714,03 €-koa.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

### IV. KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Ondoren Alkateak, aurreko ekitaldiko Aurrekontutik datozen kreditu-gerakinak Udalaren 2024ko Aurrekontuari txertatu izanaren ondoriozko 1 zk. kreditu-aldaketarako espediente onesteko emandako Alkatetzaren Ebazpenaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

### V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.


Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehenik.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zenbakidun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:





### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	21.600,00 €
VI	Inbertsio errealak	316.400,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>338.000,00 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	338.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>338.000,00 €</b>

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### VI.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 17, 18, 19 ETA 20. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiriak egin dituzte.

Hamazazpigarren obra egiaztagiria BERROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKoa (53.672,33 €) da, gehi BEZ.

Hemezortzigarren obra egiaztagiria EHUN ETA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMOKoa (115.807,22 €) da, gehi BEZ.

Hemeretzigarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOKoa (278.733,70 €) da, gehi BEZ.

Hogeigarren obra egiaztagiria LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMOKoa (97.130,48 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.



Udal teknikariak oniritzia eman dio ziurtagiri honi.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, egiten ari diren moduarekin ez daudelako ados.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzios (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

### VII.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN 3. ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Osoko Bilkurak, 2024-01-25ean egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren hirugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu zuen; obrak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 4.035.273,63 eurotan, gehi BEZ.

Proposatu diren aldaketak, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez daudenak, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortu diren inguruabarrek eragindakoak izan dira alde batetik, eta bestetik aldaketa ez funtsezkoek eragindakoak. Hain zuzen ere, obra-zuzendaritza zerbitzua daraman Jovino Martinez Sierrak burutu duen txostenaren bidez egindako eskaririk.

2024ko otsailaren 22an, kontratistari eta obra zuzendaritzari entzunaldia egiteko 3 eguneko epea eman zitzaion. Legearen arabera emandako epean, kontratistak eta obra zuzendaritzak ez dute alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorritik, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203., 205. eta 242.4. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratu aldaketa honek, obra burutzeko epea luzatzea dakar 8 hilabete eta 15 egunetan. Beraz, obra 2024ko urriaren 21ean amaituko dela aurreikusten da.

Proposatutako aldaketak ez du obraren prezioan eraginik izango.

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Hau guztia honela, eta gaia hirigintza, etxebizitza eta zerbitzuak eta ogasun batzordeetan informatuta izan ondoren, osoko bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ), horien artean Alkatearena, aurkako botorik gabe eta 6 abstentzios (EH Bildu), akordio hauek hartu ditu:

**LEHENENGOA.** Honako kontratu hau hirugarren aldiz aldatzeko espedientea onestea: "Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak" burutze-





ko obrak egiteko dena, Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari adjudikatutakoa hasierako prezioa 4.035.273,63 euro gehi BEZ direlarik.

Kontratuaren aldaketak ez du obraren prezioan eraginik izango.

**BIGARRENA.** Aldaketa honen ondorioz, obra burutzeko epea 8 hilabete eta 15 egunetan luzatuko da. Beraz, obra amaitzeko data 2024ko urriaren 21era luzatuko da.

**HIRUGARRENA.** Akordio hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun balioudun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtsu jar dezakeen.

**LAUGARRENA.** Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

#### VIII.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIA, 2023. URTERAKO.-

2024ko otsailaren 7ko Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Ministro Kontseiluaren 2024ko otsailaren 6ko Erabakia argitaratzen duena, argitaratu zen 2024ko otsailaren 8ko EAOn, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituena.

Zehazki, erabaki honek honako hau xedatzen du:

"2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19 Bi.2.b artikulua 2022ko urriaren 19ko Erabakian jasotako aurreikuspenak jasotzen ditu, eta honako hau ezartzen du:

«2. Halaber, hala badagokio, honako igoera hauek aplikatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaerari lotutako igoera 2023an. BPG nominalaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege hau egiteko erabili den koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko BPGd-ren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, zeina BOEn argitaratuko baita».

Estatistikako Institutu Nazionalak, 2024ko urtarrilaren 31n, egiaztatu du 2023an BPG nominalaren hazkundera % 8,6koa izan zela.

Bestalde, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearekin batera aurkeztu zen koadro makroekonomikoan jasotako Gobernuaren aurreikuspenak % 6ko BPG nominala jasotzen zuen.



Horrenbestez, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bos.2.b) artikuluan xedatutakoa betez, eta arauan jasotako baldintzak betetzen direnez, Gobernuko lehen presidenteorde eta Ogasuneko ministroak eta Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako ministroak proposatuta, Ministro Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6ko bileran, honako hau erabaki zuen:  
2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bos.2.b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileen ordainsarien igoera onartzea.

Artikulu honek dioenez, "BPG nominalaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege honen lan-ketarekin batera doan koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiago bada, lansarien % 0,5eko igoera osagarria aplikatuko da."

Hau honela izanik eta Ogasun Batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Lazkaoko Udalaren langileen ordainsariei ehuneko 0,5eko gehikuntza-gehirria aplikatzea erabaki du.

## IX.- IPARRA HEGOA LANKIDETZA PROGRAMAREN DIRULAGUNTZEN OINARRIEN ALDAKETA.-

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak, Osoko Bilkura honi helarazi dio 1992ko urriaren 29an Osoko Bilkurak onartu zituen Iparra Hegoa lankidetza programaren dirulaguntzen oinarriak aldatzeko proposamena.  
Oinarri berriek honela diote:

### **"IPARRA HEGOA LANKIDETZA PROGRAMA DIRULAGUNTZA AGINDUA**

#### *1. Helburua.*

Agindu honen helburua gobernuz kanpokoak diren erakundeekin lankidetza programak antolatu eta garatzeko diru laguntzak emateko araudia ezartzea da, munduko herrialde pobreetako biztanleriaren baldintza sozio ekonomikoak garatu eta hobetzeko ekintzak egiteko.

#### *2. Eskatzaileak.*

Agindu honetan ezarritako diru laguntzak gobernuz kanpokoak diren edozein erakunde edo organok eska dezake, nortasun juridikoz, irabazi asmorik gabe, deialdi honen helburuaren ekintzekin bat datorren eta bere egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duena.

Diru laguntzak banatzerakoan, hurrengo alderdiak izango dira kontutan:

- Eskatzen duen erakundeak elkartasuna eta errekurtsio pribatuak mugiarazteko duen gaitasuna.
- Azpigaratutako herrialdeentzako laguntzaren arloan egiaztatutako esperientzia eta kolaborazio mota horri ematen dion lehentasuna, bere aurrekontuen barruan.

Diruz lagundutako ekintzak eusteko gaitasuna.







Deialdi honetan ez dute parte hartuko: estatuaren mendeko erakunde edo zerbitzuek, Administrazio Autonomikoak, Foru Aldundiak eta Aurrezki Erakundeek.

### 3. *Proiektuak aukeratzeko irizpideak*

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean diru laguntzak honela esleitu dira:

- Lehenik eta behin, aurkeztutako proiektu edo / eta ekintzei puntuazio bat esleitu zaie, baremo honen arabera.
  - a) Biztanleria hartzailearen garapen ekonomiko eta sozialeko premiei eta, bereziki, sektore behartsuenen oinarritzko premiei dagokiena. Puntu 1 gehienez.
  - b) Onuradunen giza garapenerako gaitasuna handitzea, eta, hala badagokio, ekintzan parte hartzea sustatzea, ekintzarekin jarraitzeko aukera izan dezaten, haien kudeaketara itzuli ondoren. Puntu 1 gehienez.
  - c) Garapen komunitarioko programen esparruan egitea, komunitate onuraduneko ki-deen parte hartzea eta prestakuntza sustatzea eta tokiko erakundearen garapena bultzatzea. Puntu 1 gehienez.
  - d) Herritarrek garapen bidean dauden herrialdeen errealitatearekiko interesa sustatzea edo / eta etorkizuneko lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko oinarri izatea. Puntu 1 gehienez.
  - e) Proposatutako ekintzak bideragarriak izatea, bereziki herrialde onuradunak aurreikusitako helburuak betetzeko duen jarduteko gaitasunaren bidez. Puntu 1 gehienez.
  - f) Proposatutako ekintzek genero ikuspegia izatea. 0,5 puntu, gehienez.
  - g) Jarraipen hobea bermatzeko lehentasunezko zatik joko da: Erakunde eskatzaileak, bere erakundearen barruan, Lazkaoko pertsonen parte hartzea izatea edo Lazkaorekin erlazio zuzena izatea. Hau da, diru laguntza eskatzen den helburua lortzeko modu aktiboan lan egiten duten edo laguntzen duten pertsonak. Ez da lankidetzaren aktibotzat hartzen erakunde horretako bazkide gisa kuota bat ordaintzea. 4,5 puntu, gehienez.
- Puntuazio bat esleitu ondoren, eta ikusita eskaera kopurua handia izan daitekeela, Udalak proiektuen / ekintzen hautaketa egingo du. Hori horrela, aukeraketatik kanpo geldituko dira 5 puntu baino gehiago lortzen ez dituztenak.

Gutxienezko puntuazioa gainditzen ez duten proiektuak baztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, lortutako balorazioa errespetatuz betiere, puntuazio handiena dutenak hautatu ahal izango ditu, eta dagokion diru laguntzaren zenbatekoa esleitu (diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa agortu arte), bere ustez eta modu arrazoituan, zati handi batean edo osorik estaltzea merezi duten proiektuen kostua ordainduz.

### 4. *Eskaerak eta agiria.*

- Eskabidea erakunde eskatzailearen izenean egin beharko da, erakundea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuta eta behar bezala beteta. Eskaera Lazkaoko Udalean emango den eredu ofizial eta normalizatura egokituko da.
- Eskaera Lazkaoko Udaleko erregistro elektronikotik egin beharko da.



- Jardueraren edo programaren proiektu zehatza, honako hauek berariaz aipatuta: helburuak, ekintza zein biztanleri zuzentzen zaion, inguruko ezaugarri sozioekonomikoak eta geografikoak, ekintzaren edo jardueraren edukia, esku hartzearen aurrekariak, gauzatzeko ardura duen pertsona edo erakundeak eta gauzatzeko epeak.
- Aurrez ikusitako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua. Edonola ere, betebeharra izango da beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako laguntzak berariaz aipatzea.
- Erakunde eskatzailearen estatutuak.

#### *5. Eskaerak aurkezteko epeak.*

Agindu honetan aurreikusitako diru laguntzak jasotzeko eskabideak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun naturaleko epean aurkeztu ahal izango dira.

Udalak egiaztatuko balu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa ez dela osoa edo ez dela nahikoa, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari hutsa edo akatsa zuzentzeko. Epe hori igaro eta zuzenduko ez balu, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

#### *6. Proposamenak egitea eta ebaztea.*

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako informazio Batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz, eta ebazpen-proposamen bat egingo du, Udalaren Osoko Bilkurara bidaltzeko.

#### *7. Erakunde eskatzaileari adierazpena.*

Osoko Bilkuran hartutako erabakia behar bezala jakinaraziko zaio diru laguntza eskatu duen erakundeari.

Erahakiarekin batera, laguntza emanaz gero, kontratua bidaliko zaio erakundeari. Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, gehienez ere 20 eguneko epean, kontratu hori Udalarari itzuli beharko zaio, behar bezala sinatuta.

#### *8. Hitzarmen kontratua ezartzea.*

Udalak kontratu bat sinatuko du diru laguntzak jasotzen dituzten erakundeekin, legezko ordezkariarekin. Kontratu horrek alderdi hauek jasotzeko beharko ditu:

- Garatu beharreko jardueraren edo programaren xedea.
- Erakundearen garatzeko modua, erakundeak hartzen dituen betebeharrak berariaz aipatuta.
- Jarduera edo programa gauzatzeko egutegia.
- Diru laguntzaren zenbatekoa eta nola ordainduko den.
- Jasotako diru laguntza justifikatzeko modua.
- Garatutako programaren txostenak eta memoria egiteko betebeharrak.

#### *9. Diru laguntzaren justifikazioa eta epeak.*







Erakunde onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkiote Udalari ondorengo epeetan:

- Programa gauzatzeko ardura duen pertsonari dirua transferitu izanaren egiaztatzea. Diru laguntza jaso eta 2 hilabeteko epean justifikatu beharko da.
- Egindako programa edo jardueraren memoria zehatza eta diruz lagundutako zenbatekoaren gastuaren egiaztatzea. Jarduera amaitzen denetik 3 hilabeteko epean.

*10. Ez-betetze kasuak.*

Agindu honetan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez bada, berrikusi egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu, murriztu edo itzuli egingo da emandako zenbatekoa.

*11. Aurrekontu, programa eta partida.*

Diru laguntzen deialdi hau partida honi dagokio: 481.01.231.70.”

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak Osoko Bilkurari, Iparra Hegoa lankidetzaren programaren dirulaguntzen oinarriak aldatzeko proposamenaren aurrean, eta oinarrien testu arautzailea aztertu ondoren, Osoko Bilkurak aho batez honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGOA.- Hasierako izaeraz onartzea Iparra Hegoa lankidetzaren programaren dirulaguntzen oinarrien aldaketa, erabaki honen eranskinean jasotako testuaren arabera.

BIGARRENA.- Oinarri berrien testua jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeita hamar egun balioduneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, Udal honetako iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hogeita hamar egun balioduneko epean jarrita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA.- Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, Erabakia behin betikotzat jotzea.

X.- 2024KO MARTXOAREN 8RAKO EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) ondorengo adierazpena irakurtzeari ekin dio:

“Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.



Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzeko ari da, hala nola prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinarrietatik hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Lazkaoko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarriketa**-guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea-ikuspegi interseksionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.

- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoa** ezagutaraztea.





- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- **BERDINSAREA** sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerrriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea.**”

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren Osoko Bilkurak, aho batez, adierazpena onartu du.

#### XI.- 2024KO MARTXOAREN 8RAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) ondorengo testua irakurri du:

#### **“GENEALOGIA FEMINISTAK, ADINEKO EMAKUMEEN AITORTZA ETA GOBERNANTZA FEMINISTA ZAINZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOA GARATZEKO**

Martxoaren 8a dela eta, EUDELeK aurtengo proposatu duen erakunde-adierazpenaren eduki osoarekin bat egiten dugu; ez, ordea, iaztik adierazpen hori osatzeko erabiltzen duen erarekin. Izan ere, haren Berdintasun Batzordean, kide guztien ekarpenak eta iritzia jasota idatzi ordez, osatua aurkeztu zaie batzordekideei.

Jokaera horri parte hartzea ahalik eta gehien zabaltzeko ustezko erakunde-ahaleginaren aurkakoa deritzogu. Ildo horretatik, EHBildu udal taldearen iritziz, Lazkaon martxoaren 8aren kanira argitaratzeko udal-adierazpena ere, Berdintasun Batzordean eztabaidatu eta adostu behar litzateke, ondoren bozeramaileen batzordeak edo udalbatzak berresteko.

EUDELen ereduzko adierazpenarekin bat egin arren, hutsune handi bat ikusten diogu, eta hura erantsi nahi diogu adierazpenari: zaintza-sistema publiko komunitarioa garatzeko gobernantza-eredu feministaren aldarrikapena.

Horiek horrela, adierazpen hau eraginik gabe gera ez dadin, aurten Lazkaoko Udalak, konpromisoak hartu ordez, ekintza zehatz hauek egingo ditu:

- Emakumeen memoria historikoa aitortu eta berreskuratzeko helburuz, herriko kale bati aitortza merezi duen emakume baten izena jarriko dio. Adibidez, EHBilduk proposatu zuen Andre Miren Garateri. Era berean, Gerriko Kultur Elkartearekin eta Maizpiderekin elkarlanean 2022an deitu zen (eta ikertzaileen aldetik nahi bezalako erantzunik jaso ez zuen) Lazkaoko Emakumeak gaiarekin bigarren ahalegin bat egiten saiatuko da, hura hobetuz.



- Lazkaoko Mugimendu Feminista aintzatesteko, jendaurreko aitortza bat egingo du, adibidez, Osokoa Mugimendu Feministak herrian berdintasuneranzko urratsak gidatzen egin duen lan eskerga aitortuta.
- Errenta baxuenak dituzten adineko emakumeei, bereziki alargunei, ahalduntze ekonomikoa bermatzeko, eskumena duten erakundeei egiten dizkieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaerak babestea. Udalak bere gain hartzen ditu konpentsazio horiek.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketak guneak antolatuko ditu. Horiek ahalduntze feministarako eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzak sortzeko gunean izango dira. Honen adibide dira Berdintasun Batzordetik antolatzen diren ikastaro eta mintegiak. Ildo horretatik jarraitu eta zabaldu egingo ditugu beraz.
- Herriko zaintza-mahaia antolatuko du. Horren eginkizuna etxeko langileen egoerari buruzko txosten bat osatzea izango da, datorren urtean haien egoera hobetzen hasteko. Halaber, mahai horren eginkizuna izango da zaintza-lanen erantzunkidetasunaz ohartaraztea.
- Gobernantza feminista honetan datza: egiteko moduei gehiago erreparatzean egiten denari baino. Lazkaoko Udalak lidergo eraldatzaile bat bereganatuko du berdintasuneranzko bidean. Zeharlerrotasunez, egestura iragazgaitzak apurtu eta sail ezberdinen artean eraiki eta kudeatutako proiektuak konpartituko ditugu.”

Alkateak dio hau ezin dutela onartu uste dutelako ezjakintasunez edo arinkeriak egindako zenbait aspektu ikusten dituztelako bertan.

Batetik, errenta baxuenak dituzten adineko emakumeei ahalduntze ekonomikoa bermatzeko Udalak bere gain konpentsazioak hartuko dituela diotenean, ze konpentsazio dira horiek? Zenbat dirutaz ari dira hizketan? Udalaren eskumena ez diren gaietan Udalak parte hartu behar du?

Ondo geratzeko proposamena dela iruditzen zaiela, baina aurrez landu gabeko zerbaitek Osokora ekartzea, arinkeria dela iruditzen zaiela.

Bestalde, Lazkaoko etxeko langileen egoera zein den jakiteko ez dagoela txosten bat egin beharrik. Informazioa hor dagoela, eta beraien baldintzak hobetu beharrekoak direla. Mahaiak esaten duenaren zain egon gabe, Udal gobernuak langile horiekin harremanetan denbora daramala, beren ordezkari sindikalekin bilerak egiten, eta ondorioz Udal honek hurrengo Osokoa proposatuko duela Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren plegu berri batzuk idaztea. Hauek lantzen ari direla eta bertan jasotzen diren baldintzak sektore horretan dabilzan langileen ordezkariekin partekatuak eta kontrastatuak izan direla.

Alkatearen hitzetan, horiek dira bi puntu nagusiak adierazpen honi baiezkoa ez emateko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea zenbat diren Lazkaoko Udalaren bidez kontratatuta dagoen Eulen enpresaren bidez zerbitzua jasotzen duten familiak eta zenbatek jasotzen duten zerbitzua hortik kanpo.





Alkateak dio datu hori eskatu izan balu, berehala emango litzaiokeela. Eskatzeko datua behar den leihatilan.

Ormazabalek dio interesgarria izango litzatekeela jakitea zenbat langile ari diren kontraturik gabe lan egiten, eta gai honi buruzko lanketa egin beharko litzatekeela.

Hau guztia honela, eta gaiari buruz eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 6 botorekin (EAJ-PNV), mozioa baztertu du.

## XII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) zenbait galdera luzatu ditu eta esan du idatziz bidaliko dituztela erantzun ahal izateko:

- 1) Memoria berreskuratu eta ekimenak ikusarazi: Zer arrazoi du EAJ udal taldeak, berak proposatu duena onartuta, EHBilduk proposatzen duena ez onartzeko?
- 2) Mugimendu feministak aintzatetsi: Zer arrazoi du EAJ udal taldeak, berak proposatu duena onartuta, EHBilduk proposatzen duena ez onartzeko?
- 3) Adineko emakumeen ahalduentze ekonomikoa eta konpentsazioak: Zer arrazoi du EAJ udal taldeak, berak proposatu duena onartuta, EHBilduk proposatzen duena ez onartzeko?
- 4) Belaunaldien arteko topaketa eta elkarrizketa: Zer arrazoi du EAJ udal taldeak, berak proposatu duena onartuta, EHBilduk proposatzen duena ez onartzeko?

Alkateak erantzun du idatziz jasotzen dituztenean erantzungo dituztela.

## XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zortziak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.


LAZKAOKO  
UDALA